

## AHO HIZKUNTZA GORPUTZ HEZIKETAKO KLASEETAN

### HELBURUAK

- Joko eta ariketak azaltzeko orduan ikasleei azalpenak emateko aukera eman.
- Joko eta ariketen azalpena modu koherentean eta ulergarrian azaldu.
- Taldean hitz egin nahi denean, txanda errespetatu eta baimena eskatu eskua altxatuz.
- Norbaitek zerbait azaltzen duenean, bertzeek arretaz aditu.
- Sentimenak (poza, tristura...) adierazi.
- Kexa bat adierazi nahi dutenean, modu ulergarrian egin.

### EDUKIAK

KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	JARRERAK
§ Azalpenaren oinarriak	§ Joko eta ariketen azalpenetan parte hartu.  § Joko edo ariketa baten azalpena koherentziaz ekoiztu	§ Lotsa eta beldurra alde batera utzi bertzeen aitzinean hitz egiteko orduan.
§ Taldean hitz egiteko arauak	§ Taldean hitz egiteko orduan arauak bete	§ Errespetua adierazi bertzeen ekoizpenen aitzinean
§ Informazioa jaso	§ Mezua aditu eta ulertu	§ Iritzi kritikoa adierazi
§ Kexak, alaitasuna, tristura...	§ Kexak, alaitasuna, tristura ... adierazi.	

## **ARIKETAK**

### **Psikomotrizitate gelan:**

Sartu aitzin egunero ikasle batek azaltzen du zeintzuk diren bertako arauak; zer egin daitekeen eta zer ez.

### **Kiroldegian edo frontoian:**

Ikasleei jolasak azaltzeko aukera eman. Egin behar dugun jolasa edo ariketa ezaguna bada, ezagutzen dutenei aukera eman azaltzeko eta lagundu modu ulergarrian egin dezaten.

Bertze irakasleekin koordinatu gelan lantzen diren testu motak bertze klaseetan praktikan jartzeko. Esate baterako; aurten 3. zikloko ikasleek luzaketak azaltzeko modua landu dute eta bertze klase batean klasean praktikan jarri dugu.